

## I. ERANSKINA

### IRAKASLEEN KUDEAKETARI BURUZKO ZIRKULARRA. 2024/2025 IKASTURTEA

Irakasleak kudeatzeko araudia onartu zuen Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 11ko erabakiaren ondorioz (2010eko martxoaren 15eko EHAA), epeak ezarri behar dira plaza berriak eskatzeko, plaza hutsak betetzeko, irakasle bisitariak kontratatuzko, lizentzia sabatikoak eskatzeko eta irakasle-ikertzaileen lanpostuen zerrendan aldaketak egiteko. Gainera, ezohiko moduan eta USLOra egokitzeko, noiznahi onartuko dira zuzkidura berrien eskaerak, 2024/25, 2025/26 eta 2026/27 ikasturteetan erretiroagatik behin betiko libre geldituko diren plazen kargura [ikus zirkular honen hirugarren puntua].

Beraz, aurrekoa dela-eta, epe hauek ezartzen dira 2024/2025 ikasturterako eskabideak egiteko:

#### **Lehenengoa.- Behin betiko bajagatik hutsik dauden plaza finioen izaera aldatzea**

Sailek eskatu beharko dute behin betiko bajagatik (erretiroa, ezintasuna, heriotza, borondatez uko egitea, etab.) hutsik dauden **irakasle finioen** plazen (unibertsitateko edo unibertsitate eskolako katedrak, irakasle osoak, unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle titularrak, irakasle agregatuak edo irakasle kolaboratzaile finioak) izaera aldatzea, gaur egun hutsik daudenak edo plazak okupatzen dituzten titularrek 2024ko abenduaren 31 baino lehen hutsik utziko dituztenak, aintzat hartu gabe plaza horiek ordezkapen bidez bete diren ala ez.

**Plaza hutsten izaera aldatzea eskatzen ez bada** (ordezkapen bidez beteak egon arren), baliabidearen beharrik ez dagoela ulertuko da, eta amortizatutzat hartuko da plaza.

Eskaerak berekin ekar dezake aldatzea plaza berriaren ikastegia, lanpostua, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna.

Plazen izaera aldatzea eskatzeko **epe orokorra 2024ko urtarrilaren 8an hasi eta 31n amaituko** da (biak barne). **11. eranskina** bete beharko da, eta ezinbestekoa izango da entrega datan sailaren eta ikastegiko batzarraren aldeko txostena edukitzea.

Bigarren epe bat zabalduko da **apirilaren 29tik maiatzaren 31ra**, gerora sortutako bajentzat.

Gainera, ezohiko moduan eta USLOra egokitzeko, noiznahi onartuko dira zuzkidura berrien eskaerak, 2024/25, 2025/26 eta 2026/27 ikasturteetan erretiroagatik behin betiko libre geldituko diren plazen kargura [ikus zirkular honen hirugarren puntua].

### **Bigarrena.- Behin betiko bajagatik hutsik dauden irakasle ez-finkoen plazak**

Sailek ikasturtean zehar **noiznahi** egin ahal izango dituzte titularren behin betiko bajagatik hutsik dauden **irakasle ez-finkoen** (irakasle elkartuak, laguntzaile doktoreak) plazei buruzko proposamenak.

Arautegiari jarraituta plazak lehiaketa publiko bidez betetzeko eskatzean, **8. eranskina** beteko da. Irakasle elkartuen kasuan, ebaluazio batzordeko kideak proposatuko dira; irakasle laguntzaile doktoreen kasuan, ebaluazio batzordeko kide posibleak, batzordearen eraketa edo, hala badagokio, dagokion zozketa errazteko.

### **Hirugarrena.- Irakats ahalmena handitzea edo txikitzea**

Sail batek eskatu nahi badu bere irakats ahalmena aldatzea (plaza berriak sortuta, 10. eranskina), lanpostuen zerrenda aldatzea (lanaldia handituta edo txikituta) edo plaza iragankorrak finkatzea (11. eranskina), 2024ko urtarrilaren 8tik 31ra bitartean egin beharko du (biak barne), dagokion eranskina betez.

Gainera, ezohiko moduan eta USLOra egokitzeko, **noiznahi** onartuko dira zuzkidura berrien eskaerak, ikasturte honetan eta 2024/25, 2025/26 eta 2026/27 ikasturteetan erretiroagatik behin betiko libre geldituko diren plazen kargura (nahitaezko erretiroengatik edo erretiro-konpromiso bat egoteagatik).

### **Laugarrena.- Irakasle katedradunen edo osoen plazak**

Sail batek eskatu nahi baditu unibertsitate katedra berriak edo irakasle osoen plaza berriak, **ekainaren 10etik uztailaren 12ra** bitarteko epea izango du (biak barne), eta dagokion akreditazioa erantsiko dio eskaerari. Arautegia aldatu ezean, sailei gogorarazten zaie **eskaera bakarra** egin dezaketela.

Katedra berri bat eskatu nahi izanez gero, **5. eranskina** beteko da; aldiz, irakasle osoen plaza bat sortzea eskatzen bada, **6. eranskina**.

Arautegia aldatu ezean, epe berean aurkeztu ahal izango dira ere ikerketa irakasleen eskaerak.

### **Bosgarrena.- Irakasle agregatuen, titularren eta ikertzaile doktore finkoen plazak**

Sail batek eskatu nahi badu irakasle elkartuen edo irakasle laguntzaile doktoreen plazak irakasle agregatuen [titular kontratuduna] edo irakasle titularren plaza bihurtzea, edo irakasle agregatuen plazak irakasle titularren plaza bihurtzea, lan eskaintza publiko batean sartzeko, **urtarrilaren 8tik 31ra** bitarteko epea izango du (biak barne) eta **11. eranskina** bete beharko da.

Sailek ikertzaileak egonkortzeko plazak sortzea eskatu ahal izango dute (Ramon y Cajal programan, ministerioak aitortutako bikaintasun programetan edo ministerioko ikertzaileak egonkortzeko programetan parte hartzen duten ikertzaileak, baldin eta I3

edo R3 egiaztagiria badute), **10. eranskina** betez, **urtarrilaren 8tik 31ra** bitartean (biak barne).

### **Seigarrena.- Integrazioak eta berritzeak**

Unibertsitate eskolako irakasle katedradunen plaza batean dauden pertsonen unibertsitate irakasle titularren kidegoan sartzea eskatu ahal izango dute, aintzat harturik Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (USLO) 11. Xedapen Gehigarria (1), eskaera **noiznahi** bidalita.

Unibertsitate eskolako irakasle titularren plaza batean dauden pertsonen, baldin eta unibertsitate irakasle titular izateko ANECAren akreditazioa badute, kidego horretan sartzea eskatu ahal izango dute, aintzat harturik Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (USLO) 11. Xedapen Gehigarria (2), eskaera **noiznahi** bidalita eta egiaztagiria erantsita.

USLOren bosgarren xedapen iragankorrak (7) honela dio: *Quienes estén contratados/as como Colaboradores/as con carácter indefinido, posean el título de Doctor/a o lo obtengan tras la entrada en vigor de esta ley orgánica y reciban la evaluación positiva a que se refiere el artículo 82.a), accederán directamente a la figura de Profesora o Profesor Permanente Laboral, en sus propias plazas.* Pertsona horiek beren kontratuak berritzea eskatu ahal izango dute, eskaera **noiznahi** bidalita eta egiaztagiria erantsita.

Irakasle laguntzaile ez-doktoreen plaza batean dauden pertsonen doktorego titulua lortzen badute aurreikusitako 5 urteetan, sailak eskatu beharko du plaza hori irakasle laguntzaile doktoreen plaza bihurtzea, **11. eranskina** betez, **noiznahi**, egiaztagiria erantsita.

### **Zazpigarrena.- Ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzea**

Lanpostuen zerrendako aldaketen (ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzea) eragin data lauhilekoaren hasiera izango da. Horrela, aldaketa horietakoren bat egin nahi duten sailek eskaera bidali beharko dute, **11. eranskina** betez eta kontuan izanik aldaketen eragin-data:

- **2024ko urtarrilaren 8tik 31ra** bitartean (biak barne), eragin data 2024ko irailaren 1etik aurrera izango duten aldaketen kasuan.
- **2024ko irailaren 2tik 27ra** bitartean (biak barne), eragin data 2025eko otsailaren 1etik aurrera izango duten aldaketen kasuan.

Sail batek bere plazen hizkuntza eskakizuna aldatu nahi badu lanpostuen zerrendan, aldaketaren **justifikazio txostena** erantsiko dio eskaerari.

### **Zortzigarrena.- Irakasle elkartuen plazen deialdia**

- a) Irakasle elkartu klinikoek plazak (irakasguneak). Sailek eskatuko dute 2023an 3 urteko gehieneko muga beteko duten irakasle elkartuen plazen deialdia egiteko, **8. eranskina** betez, **2023ko urtarrilaren 31 baino lehen**. Eskaerari erantsiko zaio nahitaez ebaluazio batzordearen eta plazaren profil espezifikoak osatzen duten irakasgaien proposamena.
- b) Irakasle elkartuen plaza orokorrak (ez-klinikoak). USLOren arabera, egokitu egin behar da irakasle elkartu hauen lanaldia 2024ko abendua baino lehen: gehienez 4 ordu/aste eta kontratu mugagabea. Horregatik, 2024ko udaberrian, martxan jarriko da egokitzapen eta egonkortze prozesu bat, epe jakin batzuekin. Prozesu horretara arte, irakasle hauen kontratuek beren indarraldiari eutsiko diote, eta hutsik gelditzen diren plazak bakarrik sartuko dira deialdietan [ikus zirkular honen bigarren puntua].

### **Bederatzigarrena.- Irakasle emerituak, bisitariak eta itzal handikoak**

Sail batek irakasle emerituak kontratatu nahi baditu, edo indarrean dauden kontratuak luzatu, **2024ko otsailaren 12tik martxoaren 15era** bitarteko epea izango du eskaera egiteko.

Gainera, irakasle bisitarien eta itzal handiko irakasleen eskaerak aurkeztu ahal izango dira **2024ko otsailaren 12tik martxoaren 15era** bitartean, eragin data lehenengo lauhilekoaren hasiera denean (irakats lanetan hasia 2024ko irailaren eta 2025eko urtarrilaren artean), eta **2024ko irailaren 30etik urriaren 25era** bitartean, eragin data bigarren lauhilekoaren hasiera denean (irakats lanetan hasia 2025eko urtarrilaren eta ekainaren artean).

### **Hamargarrena.- Ikerbasque irakasle bisitariak**

Aintzat harturik UPV/EHUK eta Ikerbasque Fundazioak 2010eko ekainaren 4an sinatutako lankidetzaren hitzarmena, sail batek Ikerbasque irakasle bisitariak edo itzal handiko irakasleak atxiki nahi baditu, **hil bakoitzeko 1etik 5era** bitartean egin beharko du eskaera, dagokion dokumentazioa erantsita.

### **Hamaikagarrena.- Lizentzia sabatikoak**

Irakasleen lizentzia sabatikoak eskatuko dira **2024ko otsailaren 12tik martxoaren 15era** bitartean, eragin data hurrengo ikasturtearen lehenengo lauhilekoaren hasiera denean, eta **2024ko urriaren 1etik 25era** bitartean, eragin data hurrengo ikasturtearen bigarren lauhilekoaren hasiera denean. Eskaerei erantsiko zaizkie behar diren agiri guztiak, argi adierazita ordezkatu behar den ala ez eskaera egin duen pertsona.

### **Hamabigarrena - Ezohiko epeak**

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak epeak luzatu edo aldatu ahal izango ditu,

oro har edo sail jakin batzuei begira, irakats plangintzaren egutegia betetzeko, programa kontratu bat betearazteko edo beste arrazoi batzuk tarteko.

Oro har, ez da onartuko erreferentzia epeetatik kanpo jasotako eskaerarik. Nolanahi ere, behar bezala justifikatutako kasuetan eta salbuespen modura, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak aukera izango du epez kanpo jasotako eskaerak Gobernu Kontseilura bideratzeko, onar ditzan. Halakoetan, sailak txosten batean azalduko du zergatik ez den proposamena epe barruan aurkeztu.

### **Hamahirugarrena.- Aurkezteko modua**

Kontuan hartuko dira soil-soilik helbide honetara bidalitako eskaerak: [gestion.vicer.pdi@ehu.eus](mailto:gestion.vicer.pdi@ehu.eus) (edo horren orde zezarriko den prozedura telematikoz bidalitakoak).

LABURPENA	EPEA
1. Behin betiko bajagatik (erretiroa, borondatez uztea, heriotza..) hutsik dauden irakasle finkoen plazen izaera aldatzea	Orokorra: 2024ko urtarrilaren 8tik 31ra Ezohikoa: 2024ko apirilaren 29tik maiatzaren 31ra
2. Hutsik dauden irakasle ez-finkoen plazak betetzea (irakasle atxikiak, irakasle laguntzaile doktoreak eta irakasle elkartuak)	Noiznahi
3. Irakats ahalmena aldatzea, plaza berriak sortuz, plaza iragankorrak finkatuz edo lanaldia handituz/txikituz USLOra egokitzeko plaza gehigarriak	2024ko urtarrilaren 8tik 31ra  Noiznahi
4. Irakasle katedradunen, irakasle osoen edo ikerketa irakasleen plazak	2024ko ekainaren 10etik uztailaren 12ra
5. Irakasle agregatuen, irakasle titularren eta ikertzaile doktore finkoen plazak	2024ko urtarrilaren 8tik 31ra
6. Integrazioak eta berritzeak	Noiznahi
7. Ikastegia, saila, jakintza arloa edo hizkuntza eskakizuna aldatzea	- Urtarrilaren 8tik 31ra (eragin data 24/25 ikasturtearen lehenengo lauhilekoaren hasieran) - Irailaren 2tik 30era (eragin data 24/25 ikasturtearen bigarren lauhilekoaren hasieran)
8. Irakasle elkartuen plazen deialdia kontratuaren iraupena amaitzeagatik a) Irakasle elkartu klinikoa b) Irakasle elkartu orokorra (ez-klinikoa)	2024ko urtarrilaren 31 arte a) Automatikoki berritzea ezohiko egonkortze prozesura arte
9. Irakasle emerituak (kontratua egitea edo luzatzea), irakasle bisitariak eta itzal handikoak	2024ko otsailaren 12tik martxoaren 15era. 2024ko urriaren 1etik 25era (irakasle bisitariak, 24/25 ikasturtearen 2. lauhilekoan hasita)
10. Ikerbasque irakasle bisitariak	Hil bakoitzeko 1etik 5era
11. Lizentzia sabatikoak	2024ko otsailaren 12tik martxoaren 15era (hurrengo ikasturtearen 1. lauhilekoan hasita) 2024ko urriaren 1etik 25era (2. lauhilekoa)